



LEP

Maisu-maistren kidegoa Nafarroa

2021eko abendua



www.steilas.eus

LEP Nafarroa abendua 2021

324/2021 EBAZPENA, abenduaren 2koa eta 343/2021 EBAZPENA, abenduaren 29koa, IV. eta V. Eranskinetan antzemandako hutsa zuzentzen dituen

Maisu-maistren kidegoko plazak: 371

71 plaza hauetatik, 340 sarbide liberako izango dira eta 31 % 33ko edo gehiagoko desgaitasun maila dutenentzat.

Desgaitasun erreserba: prozedura honetan parte hartu ahalko dute desgaitasuna % 33koa edo hortik gora aitortua duten pertsonak, beti ere baldintza orokorrak eta espezifikoak betetzeaz gain, irakasle lanerako bai orokorrean baita hautatutako espezialitatean ere gaitasun funtzionala baldin badute. Ezin izanen dute sarbide libretik kidego, espezialitate eta hizkuntza berean aurkeztu.

1. Maisu-maistren kidegoa

Izen emate epea abenduaren 22tik urtarrilaren 25era arte irekita egongo da, bi egun horiek barne. Izena emateko epea amaitu arte, meritua berriak aurkezteko aukera egongo da baita espezialitate berrietan izena emateko ere. Guzti hau modu telematikoan egingo da, Nafarroako Gobernuaren Atariaren bidez (<http://www.nafarroa.eus>).

Oposizioaldiak aurkezpen ekitaldi bat eta bi proba izanen ditu, denak baztergarriak. Bigarren probara pasatzeko, izangaiak 5 puntu edo gehiago lortu beharko ditu lehenengo proban.

Epaimahaiaren edo hautapen batzordeen aurrean eginen den aurkezpen ekitaldi batekin hasiko da oposizioaldia; izangaiak bigarren probako A zatian aipatzen den programazio didaktikoa eraman beharko dute ekitaldi horretara. Aurkezpen ekitaldira joaten ez diren izangaiak edo programazio didaktikoa aurkezten ez duten izangaiak hautapen prozeduratik baztertuko dira. Ez da zilegi izanen izangaien ordez beste pertsona batzuk agertzea.

Oposizioa aldia maiatzaren 10a baino lehen ez da hasiko.

Merituen balorazioen erreklamazioa egiteko aukera egongo da hauek argitaratu eta hurrengo 10 egun naturaletan.

Espezialitate	Txanda irekia	Aniztasun funtzionala dutenentzako erreserba	Guztira
Haur Hezkuntza (Gaztelania)	29	4	33
Haur Hezkuntza (Euskera)	17	2	19
Lehen Hezkuntza (Gaztelania)	166	14	180
Lehen Hezkuntza (Euskera)	62	6	68
Atzerriko hizkuntza: Ingelesa (Euskera)	10	1	11
Pedagogia Terapeutikoa (Gaztelania)	46	4	50
Entzumena eta lengoaia (Gaztelania)	10	-	10
Guztira	340	31	371

Espezialitate guztien azterketak egun berean izango dira. Erkidego guztietan data berean izaten saiatuko dira eta Nafarroan espezialitate eta hizkuntza desberdinetako azterketak ordu desberdinetan jartzeko asmoa adierazi dute.

2. Titulazioak

Baldintza orokorrez gainera (espainiar nazionalitatea edukitzea edo Europar Batasuneko beste herrialde batekoa izatea; gutxienez 18 urte edukitzea; eginkizunekin bateraezina izango den eritasun edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea; Administrazio Publikoan aritzea galarazten duen diziplina espedienterik ez izatea; karrerako funtzionarioa ez izatea, ezta praktiketako edo izendapen esperoan dagoena ere), hau da sartzeko titulazio baldintza:

Maisu-maistren titulua edo kasuan kasuko gradu, Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle diplomadun titulua edo Lehen Irakaskuntzako maisu-maistren titulua.

2.1. Hizkuntza eskakizunak

Euskaraz eman beharreko lanpostuetan sartzeko baldintza orokor eta berariazkoek gain, izangaiek titulu hauetako bat izan beharko dute: EGA titulua (Euskararen Gaitasun Agiria), Euskaltzaindiak emandako Gaitasun Agiria, Hizkuntza Eskola Ofizial batek emandako Gaitasun Agiria edo baliokidetzat jotzen den beste titulu bat.

3. Parte hartzeko eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak

- Parte hartzeko eskaera aplikazio espezifikoek bidez bakarrik egin ahal izango da: Sartzeko hautaketa-prozedurarako: <https://www.navarra.es/eu/tramiteak/on/-/line/2022ko-Maisu-maistren-Kidegoan-sartzeko-hautapen-prozedura>
Pertsona bakoitzeko eskabide bat aurkeztuko da, eta aurkeztutako azken instantzia izango da baliozkoa.
- Eskabide honetan hautatzen diren espezialitate eta hizkuntzak zehaztuko dira bai eta sarbiderako modua (sarrera irekia edo desgaitasuna dutenentzako erreserba) ere.

Dokumentuak.

Modu orokorrean:

1. Nortasun agiri nazionalaren edo nortasun agiri baliokidearen bi aldeetatik eskaneatutako kopia
2. Erantzukizunpeko adierazpena, inongo Administrazio Publikoren zerbitzutik diziplina espediente bidez berezia ez dagoela edo eginkizun publikoetarako desgaitua ez dagoela adierazten duena (webgunean).

3. Parte hartzen duen espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko ordainketa gutun bat (41,60 euro espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko, www.educacion.navarra.es webgunean "kontzeptuaren azalpen" gisa parte hartu nahi duten espezialitatea eta hizkuntza jarriko dituzte). Tasen ordainketen salbuespenak bi dira: % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten izangaiak edo/eta deialdi hau argitaratu baino hilabete bat lehenagotik gutxienez lan-eskatzailerik gisa inskribaturik dauden pertsonak, bulegoak emandako agiria aurkeztuz.
4. Maisu-maistren tituluaren bi aldeetatik eskaneatutako kopia, edo dagokion gradudun tituluarena, edo titulua luzatzeko eskubideak ordaindu izanaren ziurtagiria (atzerriko titulua bada honen homologazio agiriaren fotokopia).
5. Merezimenduen frogagiriak, I. eranskinean agertzen den baremoan ezarritakoaren arabera.

Xehetasunak:

6. Euskaraz irakasteko gaitasuna ematen duen EGA edo titulu baliokidearen fotokopia (euskarazko lanpostuetarako).
7. **Beste nazionalitate bateko izangaiak:** 3-7. puntuetan aipatutakoaz gain, dokumentu hauek: pasaportearen eta bisatuaren fotokopiak, bisatuaren txartela edo salbuespen ziurtagiria eskatu izanaren ordezkagiria, bere herrialdean diziplina espedienterik edo zigor prozedurarik ez edukitzearen erantzukizunpeko adierazpena, eta gaztelaniaren ezagutza akreditatzen duen tituluaren fotokopia.
8. **Desgaitasuna dutenentzako erreserba prozedurako izangaiak:** Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako Mendekotasuna Baloratzeko eta Orientatzeko taldeek emandako ziurtagiria, edo bestelako txosten loteslea, talde multiprofesional eskudun batek emandakoa, % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna egiaztatzen duena. Edo Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuak (IMSERSO) edo autonomia erkidegoko organo eskudunak emandako ebazpena edo ziurtagiria.
9. % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten izangaiak gainera, desgaitasun maila akreditatuko duen ziurtagiria, eta orri aparte batean, eskatzen diren denbora eta baliabide egokitzapenak.

Hautatua izan zarenean:

10. Epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasunaren eta ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik: oposaketetako gairiduen zerrendak argitaratzen direnetik 5 egun baliodun izango dituzte izengaiak agiriak aurkezteko

Fotokopia sinpleak izan ahalko dira. Orijinalak edo fotokopia konpultsatuak eskatu ahal izango zaie pertsona hautatuei, dagokion ebazpenak ezarritako epean eta moduan.

4. Sarbide libreko eta desgaitasun erreserbako hautapen prozesuak

Lehiaketa-fasea barematzeko aurkeztutako merezimenduen balorazioari dagokio.

Oposizio-faseak programazio didaktikoa aurkezteko eta entregatzeko ekitaldi bat eta bi proba baztertzaila ditu.

Hautapen proba guztiak hizkuntza espezialitateei edo espezialitatea emango den hizkuntzari dagokion hizkuntzan egingo dira (abenduaren 27ko 17/2017 Foru Legea).

Lehiaketaldia 1/3	Oposizioaldia 2/3	
Merezimenduak	Lehenengo proba	Bigarren proba
Aurretiko irakaskuntza-esperientzia 5 puntu gehienez	A atala. Proba praktikoa. 2 o. 5/10 (gutxienez 2,5)	A atala. Programazio Didaktikoa. Gehienez 30 minutu 3/10
Prestakuntza akademikoa: 5 puntu gehienez	B atala. Gai teorikoa. 2 o. 5/10 (gutxienez 2,5)	Parte B. Unidad Didáctica. Gehienez 30 minutu 7/10
Beste batzuk: 2 puntu gehienez	< 25: 2 bolatxo.	Epaimahaiaren galderak . Gehienez 15 minutu.
Gehienez 10 puntu	Gutxienez 5	Gutxienez 5

5. Merezimenduak baloratzeko baremoa (I. Eranskina)

Ez da beharrezkoa izango dokumentu orijinalak edo fotokopia konpultsatuak aurkeztea eskabideak aurkezterakoan, fotokopia sinpleak izan ahalko dira. Aukeratuak izan diren pertsonen dokumentuen orijinalak edo fotokopia konpultsatuak eskatuko zaizkie.

Merezimenduak (gehienez 10 puntu)
I. Irakasle esperientzia (gehienez 5 puntu)
I.1. Kidego berean ikastetxe publikoetan: urte oso bakoitzagatik 1 puntu (hilabete/urte frakzio bakoitzagatik 0,0833 puntu).
I.2. Beste kidego batzuetan ikastetxe publikoetan: urte oso bakoitzagatik 0,5 puntu (hilabete/urte frakzio bakoitzagatik 0,0416 puntu).
I.3. Kidegoko maila edo etapa bereko espezialitateetan, bestelako ikastetxeetan: urte oso bakoitzagatik 0,5 puntu (hilabete/urte frakzio bakoitzagatik 0,0416 puntu).
I.4. Kidegoko maila edo etapakoak ez diren espezialitateetan, bestelako ikastetxeetan: urte oso bakoitzagatik 0,250 puntu (hilabete/urte frakzio bakoitzagatik 0,0208 puntu).

II. Prestakuntza akademikoa (gehienez 5 puntu)	
II.1. Alegatutako tituluari dagokion espediente akademikoaren batez besteko nota: 0-10 eskala 0-4 eskala:	1
II.1.1. 6tik 6,99ra 1,5etik 1,99ra	1
II.1.2. 7tik 8,49ra 2tik 2,74ra	1,25
II.1.3. 8,5etik 10era 2,75etik 4ra	1,50
II.2. Graduondoak, Doktoregoak eta Aparteko Sariak:	1
II.2.1. Eskakizun ez diren Ikasketa aurreratuen ziurtagiria/diploma, Master titulu ofiziala, Ikertzeko Nahikotasuna edo baliokidea	1
II.2.2. Doktorego titulua	1
II.2.3. Doktoregoko Aparteko Saria	
II.3. Unibertsitateko beste titulu batzuk (eskakizuna ez direnean):	1
II.3.1. Lehen zikloko tituluak	1
II.3.2. Bigarren zikloko tituluak	1
II.3.3. Araubide Bereziko Irakaskuntza tituluak eta Lanbide Heziketa espezifikoko tituluak:	
a/ Musika edo Dantzako titulu profesionala	0,50
b/ Hizkuntza Eskola Ofizialek emandako maila aurreratuko ziurtagiri bakoitzeko	0,50
c/ Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako teknikari titulua	0,20
d/ Lanbide Heziketako goi mailako teknikari titulua	0,20
e/ Goi mailako kirol teknikari titulua	0,20
III. Beste merezimendu batzuk (gehienez 2 puntu)	
III.1. Etengabeko prestakuntza (gehienez puntu 1):	
III.1.1. 10 prestakuntza ordurengatik (gehienez 500 ordu)	0,02
III.2. Euskara, ingeles, aleman edo frantses tituluak:	2
III.2.1. C2.	1
III.2.2. C1.	0,75
III.2.3. B2.	0,50

6. Oposizioaldiko probak baloratzeko irizpideak (IV. Eranskina)

Idatzizko proba guztietarako ohar orokorrak (programazio didaktikoak idatzizko proba gisa hartzen dira).

- **Ortografia akatsak:** akats bakoitzagatik 0,25 puntu kenduko dira (hitz berean egindako akatsak behin baino ez dira zigortuko).

Gaztelaniaz egiten diren probetan, azentu-markak oker erabiltzea: 0,25 puntu kenduko dira azentu-markak erabiltzean egindako akats bakoitzeko (hitz berean egindako akatsak behin baino ez dira zigortuko). Kontuan hartuko dira RAEk egin dituen azken eguneraketak.

- **Gramatika akatsak:** 0,25 puntu kenduko dira inkoherentzia gramatikal bakoitzeko.

Ortografia eta gramatika akatsak proben zati bakoitzari dagokion guztizko puntuazioaren % 20 zigortuko dira gehienez ere.

6.1. 1.A proba. Zati praktikoa (III. eta IV. eranskina)

Epaimahaiak espezialitateari buruz proposatutako zenbait eskola-egoerari buruzko kasu bat ebatzi beharko da.

Proba honetan, idatziz erantzun beharko zaie esparru teorikoaren barruan oinarritutako arrazoizko esku-hartze bati buruz planteatutako diren galderei, betiere Nafarroako Foru Komunitatean espezialitateari buruz indarrean dagoen araudiarekin lotuta. Ariketa hau deitutako espezialitatearen xedeko hizkuntzan egin beharko da, edo ingelesez, Atzerriko Hizkuntzaren espezialitatea Ingelesa denean.

Gainera, izangaiak egiten dituen antolaketa eta didaktika arloko proposamenak baloratuko dira, horien bidez epaimahaiak frogatuko baitu izangaiaren prestakuntza zientifikoa eta eskola arloko estrategiak noraino menperatzen dituen.

Proba baloratzeko irizpideak

- **Prestakuntza zientifikoa (zorrotasun teknikoa eta espezialitatearen gaineko ezagutza zientifikoa):**
 - Planteamenduaren justifikazioa edo funts teorikoa.
 - Hizkera tekniko zehatza eta zuzena. Espezialitatearen gaineko ezagutza zientifiko eta tekniko eguneratua eta zorrotza aplikatzea.
 - Proiektu didaktiko batekin lotutako kasu praktikoetan: zientzia-, curriculum- eta pedagogia- ezagutzetan oinarritutako planteamendu didaktikoak eta antolakuntzakoak egitea.
- **Espezialitateko berezko trebetasunak (espezialitateko trebetasun teknikoak menderatzea, bai eta estrategia eta teknika didaktiko-pedagogikoak ere):**
 - Kasu praktikoak eta haien atalak modu zuzen, ordenatu eta eraginkorrean ebatzea.
 - Proposatutako egoeratarako egokiak diren estrategia tekniko eta/edo metodologikoak aplikatzea.
 - Behar izanez gero, trebetasun teknikoak erakustea espezialitateko berezko lanabes, tresna, protokolo eta prozeduren erabileran.

6.2. 1.B proba. Gaia (II. eta IV. Eranskina)

- 1993ko irailaren 9ko Aginduaren I. eranskina (irailaren 21eko Estatuko Aldizkari Ofiziala).
- ECI/592/2007, martxoaren 12ko araua, (2007ko martxoaren 15eko BOEn).
- LOGSEri buruzko aipamen guztiak, indarrean dagoen maiatzaren 3ko 2/2006 Hezkuntza Lege Organikoari buruzkoak direla ulertu behar da.

Proba baloratzeko irizpideak

- **Gaiaren antolaketa:**

- Gaia modu egokian justifikatzea.
- Sekuentzia logiko eta koherente bati jarraitzea zati guztiak garatzean.
- Gaia modu orekatuan garatzea.

- **Berariazko edukia:**

- Gaiaren edukien eguneratze eta sakontasun maila.
- Gaiaren berezko hizkera teknikoa erabiltzeko zorrotasuna eta zehaztasuna.
- Erreferentzia bibliografiko egokiak eta eguneratuak.

- **Aipamen didaktikoak:**

- Edukiak duen harremana Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemarekin eta berezko curriculumarekin eta irakaslanarekin.
- Gaiari lotutako proposamen didaktiko originalak edo berritzaileak egitea.

6.3. 2.A proba. Programazio didaktikoa aurkeztea eta defendatzea (IV. eta V. eranskina)

Ez da denbora espezifikorik egongo programazioa prestatzeko. Hala ere, aurkezpenerako egoki iruditzen den material osagarria erabili ahal izango da, pertsona bakoitzak jarritakoa. Kopia bat entregatuko zaio epaimahaiari aurkezpen ekitaldian eta beste kopia berdin-berdin bat, azalpen ekitaldian.

Programazio didaktikoa parte hartzen den espezialitatearekin lotutako arlo baten (eremuak edo arloak, Haur Hezkuntzako etaparen kasuan) curriculumari buruzkoa izanen da.

"Bertan, honako hauek zehaztu beharko dira: helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak, metodologia didaktikoa eta hezkuntza-laguntzako berariazko premia duten ikasleei arreta emateko neurriak. Horrez gain, Lehen Hezkuntzako etaparen kasuan, honako hauek ere zehaztuko dira: hezkuntza-laguntza horrek gaitasunak eskuratzeko eta etapako helburuak lortzeko egiten duen ekarpena, ikaskuntzaren estandar ebaluagarriak eta kalifikazio irizpideak". (343/2021 Ebazpena, hutsak zuzentzen dituen).

Gehienez ere 50 orrialde zenbakitu izanen ditu, DIN-A4 formatuan, lerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimatu gabe. Grafika eta tauletan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Argazki-oinetan, orri-oinetan eta goiburuan Arial ez den beste letra mota bat eta aipatutakoak baino neurri txikiagoak erabiltzen ahalko dira. Azalaren diseinua libre da, baina nahitaez jasoko dira izangaiaren izena, abizenak eta NAN zenbakia edo identifikazio agiria. Programazioak gutxienez 10 unitate didaktiko zenbakidun eduki beharko ditu. Programazio didaktikoaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 orrialde horien barruan. Izangaiak bere borondatez eranskinak edo material lagungarriak gehitzen baditu, ulertuko da baimendutako orri kopuruaren barruan daudela, eta horiek ere aipatutako ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte.

V. eranskinean jasotako curriculumetan oinarritu beharko dira:

- 23/2007 Foru Dekretua, martxoaren 19koa, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko irakaskuntzetako curriculumak ezartzen duena.
- 60/2014 Foru Dekretua, uztailaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean Lehen Hezkuntzako curriculumak ezartzen duena.
- 47/2009 Foru Agindua, apirilaren 2koa, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan diharduten ikasleen ebaluazioa arautzen duena.
- 984/2021 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Lehen Hezkuntzako ebaluazioa eta promozioa arautzen dituena.
- 72/2014 Foru Agindua, abuztuaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehen Hezkuntzan ari diren ikasleak ebaluatu eta hurrengo mailara pasatzeko arauak ezartzen dituena.
- 93/2008 Foru Agindua, ekainaren 13koa, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen duena.

Proba baloratzeko irizpideak

• Antolaketa:

- Programazioaren aurkezpena eta justifikazioa egitea eta Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen curriculumaren arabera testuingurua azaltzea.
- Ongi planteatuak egotea programazioa osatzen duten elementuak, atalen koherentzia eta proposatzen duen sekuentziarioaren logika.

• Eduki teknikoak:

- Programazioak curriculum elementuak zehazten ditu, mailaren arabera.
- Programazioak honakoak zehazten ditu: helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak eta adierazleak, metodologia, baliabide didaktikoak, etengabeko ebaluaziorako prozedurak eta tresnak, bai eta aniztasunari erantzuteko neurriak ere, arreta berezia jarriz hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen kasuan. Lehen Hezkuntzako etaparen kasuan, programazioak ikaskuntzaren estandarrak ere zehazten ditu, bai gako-gaitasunak eskuratzeari dagokionez, bai helburuak lortzeari dagokionez. (343/2021 Ebazpena, hutsak zuzentzen dituena).

- **Eduki didaktikoa:**

- Ikasmailarako egokiak diren metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak.
- Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan aplikatu beharreko araudiari jarraituz.
- Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarriz hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako neurriei.

6.4. 2.B proba. Unitate Didaktikoaren aurkeztea eta defendatzea (IV. eta V. eranskina)

Lehenengo proba gairiditu duten hautagaiak ordu bat izango dute Programazio eta Unitate didaktikoaren aurkezpenadefentsa prestatzeko.

Aukeratu ahal izango da:

- Programazioan aurkeztutako hamabi unitateetatik hiru aukera aterako ditu hautagaiak, eta horietako bat jorratu beharko du.
- Espezialitatearen gaitegi ofizialetik ausaz hautatutako hiru gairen artetik.

Unitate didaktikoa prestatu eta azaltzeko, izangaiak nahi duen laguntza-materiala erabiltzen ahalko du, berak ekarria, eta gidoi moduko bat, bi orrikoa gehienez, azalpena bukatutakoan epaimahaiari entregatu beharko diona.

Honako hauek ezarri beharko dira: unitate didaktikoaren ikaskuntza-helburuak, edukiak, ebaluazio irizpideak, planteatuko diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak, alderdi metodologikoak eta antolaketakoak, ebaluaziorako prozedura eta tresnak, bai eta gaitasunak garatzearekin duten lotura ere. Horrez gain, Lehen Hezkuntzan kontuan hartuko dira bai ikaskuntzaren estandar ebaluagarriak, baita kalifikazio irizpideak ere.

7. Espezialitate berriak eskuratzeko prozesua (II. Titulua)

Espezialitatea
Haur Hezkuntza
Lehen Hezkuntza
Atzerriko hizkuntza: Ingelesa
Pedagogia Terapeutikoa
Entzumena eta lengoaia

7.1. Izangaiek bete beharreko baldintzak

- A) Maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioa izatea, eta behin-behineko edo behin betiko destinoa Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren kudeaketa esparruan izatea.
- B) Eskuratu nahi den espezialitatea zein den, bertan txanda irekian sartzeko eskatzen diren betebeharrak betetzea.

7.2. Hautapen sistema

Proba bakarra egingen da. Proba horretan, lortu nahi den irakaskuntza-espezialitatearen berariazko ezaupideak erakustea hartuko da kontuan, baita izangaien baliabide didaktiko eta pedagogikoak ere.

Probak bi zati izanen ditu: espezialitateko gai baten azalpena eta zati praktikoa.

Izangaiek espezialitateko gai baten ahozko azalpena egin beharko du (hiru gairen artean aukeratuta), eta, ondoren, horren gaineko eztabaida bat egingen da, hori ere ahoz. Gaiak epaimahaiak aterako ditu zozketa bidez II. eranskinetako gai zerrendatik.

Azalpena osatzeko, planteamendu didaktiko bat egingen da, izangai bakoitzak libreki hautatutako ziklo edo ikasmaila jakin bati buruz.

Izangaiek bi ordu izanen ditu ariketa hau prestatzeko, eta egokia iruditzen zaion material osagarria erabiltzen ahalko du, berak ekarrita. Halaber, prestaketa denboran eginiko gidoi bat erabiltzen ahalko du azalpenean. Gidoi hori bi orrikoa izanen da gehienez, eta proba bukatutakoan epaimahaiari emanen zaio. Gaiaren azalpena eta planteamendu didaktikoa egiteko berrogeita bost minutu izanen ditu gehienez. Eztabaidak hamabost minutu iraunen du gehienez.

Eduki praktikoko zatia III. eranskinen ezarritako zehaztapenei lotuko zaie.

Zero puntutik hamar puntura bitarte baloratuko da proba, eta izangaiek gutxienez ere bost puntu lortu beharko dituzte proba gainditzeko. Puntuazioa honela banatuko da: zati praktikokoak % 30 izanen du, eta gaiaren azalpen eta eztabaidaren zatiak % 70. Epaimahaiak "gai" edo "ez gai" kalifikazioa emanen dio probari.



Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Eulogio Serdán 5 01012 Gasteiz ☎ 945 141 104 📠 945 144 302 araba@steilas.eus	Jose Maria Eskuza 1, 1 esk. 48013 Bilbo ☎ 944 100 298 📠 944 101 360 bizkaia@steilas.eus	Basotxiki 30-34 atz. 20015 Donostia ☎ 943 466 000 📠 943 453 627 gipuzkoa@steilas.eus	Joaquin Beunza, 4-6 behea 31014 Iruñea ☎ 948 212 355 📠 948 229 790 nafarroa@steilas.eus
UPV/EHU Arabako Campusa Ikasgelategia, 204. Bulegoa 01006 Gasteiz ☎ 945 013 397 steilas-araba@ehu.es	UPV/EHU Bizkaiko Campusa Liburutegiko eraikina 1. solairua 48940 Leioa (Bizkaia) ☎ 946 012 434 ☎ 946 012 435 steilas-bizkaia@ehu.es	UPV/EHU Gipuzkoako Campusa Ignacio M ^a Barriola eraikina Elhuyar Plaza 1 20018 Donostia ☎ 943 018 436 ☎ 943 018 281 📠 943 018 140 steilas-gipuzkoa@ehu.es	 www.steilas.eus